



Zorionak Arrankudiaga eta Zollo! Eta zorionak Aiaraldea! Zorionekoak gu euskaldunok, gaur, euskaraz bizi nahi dugunon lurraldea, zabalagoa baita.

100 udalerrien langa gainditu du **UEMAk**: Udalerrri Euskaldunon Mankomunitateak, euskalduntzea bultzatzeko lan egin, eta euskaraz bizitzea posible dela erakutsi nahi duten udalen bilguneak. Ehun herri horien artean dira gure eskualdeko bi: **Orozko** eta **Arrankudiaga**. Tipi-tapa aurrera goaz, egunetik egunera euskaraz bizitzeko territorioak irabaziz. Bejondeizuela!

Egindako bidearen **aitortza** bada gaurkoa eta egiteko dagoen biderako **akuilu** eta **indar iturri** izan bedi. Etorkizuneko Euskal Herri euskalduna egunetik egunera eraikitzen dugu, gaurkoa **pausu garrantzitsua** da eta atzetik berriak etorriko dira, ez dugu zalantzarik.

UEMAko parte izateak ere badakar abantaila bat, Arrankudiagan, estatistikoki askoz errazagoa da euskaldun batekin topatzea ez euskalduna batekin baino. Mauka, erdara nagusitzen den eskualde bateko euskaldunontzat! Baliatu aukera eta **erabilera biderkatu dezagun!** Euskarak bizi eta libre hartu ditzala Arrankudiaga eta Zolloko txokoak, eskualde osoko euskaldunon gozagarri.

Bukatzeko, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren izenean Arrankudiaga eta Zolloko herritarrei eta Udalari guri **zorionik zintzoenak**. Gozatu egunaz, gure hizkuntzaz eta eskerrik asko euskararen lurraldea, Aiaraldean ere handitu, duzuelako. Eta bihar, jarrai dezagun elkarrekin gure ametsa egi bihurtzen: **Euskal Herri euskaldun bat**.

Arrankudiaga, 2023ko martxoak 26